

Haur liburuaren nazioarteko eguna ospatuko dute gaur

Mundakan, Busturian eta Foruan umeentzako ipuin kontalari saioak antolatu dituzte gaurko.

O. ZABALONDO

Haur liburuaren nazioarteko eguna da gaur eta eskualdeko zenbait herritan liburuek dituzten garrantzia azalduko diete umeei. Besteak beste, Mundakan, Foruan eta Busturian umeentzako ipuin kontalari saioak eta ipuin irakurketak izango dituzte herrietako liburutegietan.

Ipuin kontalari saioak

Busturian, iaz egin bezala, bi ipuin kontalari saio izango dira Altamira auzoko liburutegian. Lehenik eta behin, 10:30ean Busturiko eskolako txikienak hurbilduko dira liburutegira, bi eta zazpi urte bitarteko umeak, hain zuzen ere. Patricia ipuin kontalariaren 'Marilo Betilo' ipuina entzun ahal izango dute eskolako txikienek.

Bestalde, 15:00etan, zortzi eta hamabi urte bitartean dituzten ikasleen txanda izango da. Horiek Apika taldearen ipuin saioaz gozatu ahal izango dute liburutegian. Beranduago, 18:00etan, hain zuzen, Apika taldea Mundakako Jose Maria Etxeita udal liburutegian izango da bertako umei ere ipuinak kontatzeko asmoz.

Foruan, ipuin irakurketa

Foruan ere haur liburuaren nazioarteko eguna ospatuko dute aurreko urteetan egin duten moduan. Horretarako, ipuin irakurketa saioa izango dute gaur, 18:00etatik aurrera, Joan Mari Torrealdei kultura etxean. Ipuin irakurketa haur liburutegi gelan izango dela azaldu dute kultur etxearen arduradunek.